

Usurbilgo Udala

2017KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Irene Garcia Palacios
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Mirari Azurmendi Sorazu

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko maiatzaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

* **2017/04/25EKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2017ko apirilaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017KO APIRILAREN 10ETIK MAIATZAREN 19RA (2017/0354-2017/0518)



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2017ko apirilaren 10etik maiatzaren 19ra bitartean (2017/0354–2017/0518) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- USURBILGO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II PLANA (2017-2020).

Josune Estellak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Udala gai hau lantzen 2008an hasi zela dio, 2014ean amaitu zen lehenengo plana eta hortik aurrera bigarren plana lantzen hasi zirela aipatu du. 2016an prozesu parte-hartzaile bat abian jarri zen non herritarrek, udaleko teknikariek eta politikoeek parte hartu duten. Emakundek plan honetan bere zuzenketak egin eta ontzat eman zuenean, batzordera eraman zen eta orain pleno honetara ekartzen da onespena jasotzera.

Plan honek lau ardatz edo helburu nagusi dituela adierazi du:

- Berdintasunaren aldeko gobernantza.
- Emakumeen boteretzea eta balio aldaketa.
- Herri hezitzailea eta zaintzailea.
- Indarkeria matxistarik gabeko herria.

Jarraian, irizpenaren hiru puntuak irakurri ditu.

Amaitzeko, batzarkideei jakinarazi die ekainaren 6an aurkezpena egingo dela Potxoenean eta bertaratzeko gonbidapena luzatu die.

Batzarkideek, Parekidetasun batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: BE.01/2017-0009

AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen aukera berdintasun eskubidea aitortzen du, eta herri aginteez berdintasun alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

4/2005 Legearen Atariko Tituluaren bigarren artikuluan legearen aplikazio eremua zehazten da: “Lege hau Euskal Herri-administrazio guztiei aplikatuko zaie, testuan zehar ezarriko diren salbuespenak salbuespen”. I. Tituluaren 7.artikuluaren lehenengo puntuan tokiko administrazioen eginkizunak zehazten dira.

Hori guztia kontuan hartuz, Usurbilgo Udalak 2008an heldu zion berdintasunaren gaiari. Urte horretan bertan egin zuen Usurbilgo emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko diagnostikoa eginez lehendabizi, eta diagnostiko horretan oinarrituta,



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2010-2014) diseinatu ondorengo urtean.

Aipatutako I. Planaren indarraldia 2014. urteko abenduan bukatu zen eta bi urteetan zehar urterako ekintza-plan espezifikoak egin ondoren, 2016. urtean zehar Berdintasunerako II. Plana diseinatzeko herritarren parte-hartzean oinarritutako prozesua garatu du Usurbilgo Udalak, eta zehazki, bere Parekidetasun Sailak.

Plan berriaren erronkak eta helburuak zehazteko, aurreko Planaren bidez non eta nola eragin den hartu nahi izan dugu kontuan. Baita, berdintasunaren ikuspegitik egungo errealitatearen irakurketa egiteko garaian kontuan hartu beharreko elementu-giltzarriak zein diren ere. Horiek aintzat hartuta, Berdintasunerako II. Plana landu dugu.

Plan berri honek 4urteko iraunaldia edukiko du: 2017-2020 epealdirako izango da. Berdintasunerako Plana diseinatzearen helburua da, Usurbilek, datozen urteetan, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko bidean pausoak egiten jarraitzeko tresna eraginkorra izatea. Beraz, Usurbilek datozen urteetan, berdintasunaren ikuspegitik, dituen erronkak eta helburuak finkatu dira; horiek lortzeko egin beharreko ekimenak ere zehaztu direlarik.

Hona hemen, Usurbilgo Berdintasunerako II. Planaren lan ardatzak eta helburu nagusiak:

Berdintasunaren aldeko gobernantza

- Berdintasunerako politiken kudeaketa eta planifikazioa hobetzea
- Berdintasunerako politikak lantzeko dauden baldintzak eta baliabideak hobetzea eta indartzea.
- Udal-politiketan genero ikuspegia txertatzea

Emakumeen boteretzea eta balio aldaketa

- Emakumeen autonomia eta boteretze-prozesuak sustatzea (jabetu-ahaldundu-boteretu klabeen)
- Emakumeen partaidetza soziopolitikoareagotzea
- Herriari, eta oro har, gizarteari emakumeek egin dioten ekarpena ikusaraztea eta aitortzea
- Herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea, genero rol eta estereotipoak gainditzen dituzten balio eta eredu berriak sustatuz.

Herri hezitzailea eta zaintzailea

- Herritar guztien eguneroko bizitzako beharretara egokituko den herria eraikitzea
- Hezkuntzaren eremu ezberdinetan berdintasunaren eta hezkidetzaren balioak transmititzea
- Zaintzaren erantzukidetasuna eta etika bultzatzea

Indarkeria matxistarik gabeko herria

- Indarkeria matxistaren inguruan herritarrak sentsibilizatzea, eta norabide horretan Udala eragile aktibo bilakatzea
- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea



Usurbilgo Udala

BATZORDEKO BOZKETA

2017ko maiatzaren 18an egindako Parekidetasun eta Aniztasun ohiko batzordean gaia aztertu eta bozkatzeko da.

Aldeko botoak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Fermin Orue-Echevarria Iturri, Miren Josune Estella Arranz eta Josune Urkola Larrarte

Beraz, diktamena aho batez onartzen da.

Parekidetasun eta Aniztasun batzordearen irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legea 4/2005 legea betetzea.

BIGARRENA: Usurbilgo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartzea.

HIRUGARRENA: Udal sail guztiei akordio honen berri ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Planaren onarpenera iragartzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisolari eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIA.

Alkateak azalpenak eman ditu.

Euskal Herriko Auzitegi Nagusitik jakinarazpena heldu dela esan du jakinaraziz Udalak bake epaile titularra eta honen ordezkoa hautatu behar dituela. Hortaz, jardunbide bati hasiera eman behar zaiola adierazi du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

“Esp. zk.. ID.02/2017-0171

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak Udal honi apirilaren 18an egindako jakinarazpenaren arabera, Bake-Epaile titular berria eta honen ordezkoa izendatzeko dagokion jardunbideari hasera eman behar zaio, Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek, eta ekainaren 7ko 3/1995 Bake-Epailei buruzko Araudiak xedatutakoa kontutan hartuz.

Udalbatza Plenoak, gehiengo absolutuz, aipaturiko karguak hautatzeko eskuduntza dauka, eskaerak aurkezteko epea finkatu eta iragan ondoren. Epea finkatu eta gero, iragarkiak Udaletxeko Iragarki Taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Epaitegi Dekanoan argitaratu behar dira.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiar Estatuko nazionalitatea izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluek Kargu judizialeko aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzea.

Halaber, honako merituak ere baloratu ahal izango dira: bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza.

Beraz, Antolakuntza Batzordeak, 2017ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, aho batez, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin, plenoari luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaille titularra eta honen ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkez ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- 2018 URTERAKO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Alkateak adierazi du ohikoa den bezala herriko jaieguna uztailaren 2a, Santixabel eguna, izendatzea proposatzen dela.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena azertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2017-0213

Maiatzaren 2ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean apirilaren 25eko 148/2017 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2018. urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena, argitaratu da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2018. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.

Aipatu dekretuaren bigarren puntuan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla.

Horietako bat, uztailaren 31a izango da, Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politikarako Lurralde Ordezkaritzatik jasotako oharrean udal honi jakinarazi baitzaio 2018rako San Inazio eguna, uztailaren 31a, Gipuzkoa osoko jaieguna izatea aurreikusita dagoela.

Hau guztia horrela, Antolakuntza Batzordeak, 2017ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, aho batez, Xabier Arregi, Jone Urdampilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin, plenoari luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: 2018ko Santixabel eguna, uztailaren 2a (astelehena) herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- 2017/0509 DEKRETUA BERRESTEA.

Alkateak adierazi du alkate dekretuz erabaki zela Udalak GHK-ri tartekatu zion errekurtsio batean atzera egitea, zehazki 2016ko tarifetan.

Udal honek 2017ko tarifak ere errekurritu egin dituela esan du, iruditzen baitzaie hondakinen kudeaketako irizpide nagusia ez dutela errespetatzen.

Behin baino gehiagotan adierazi duten moduan, beraien ustez hondakinen kudeaketan bi printzipio nagusi oso garrantzitsuak dira, batetik, praktika onak saritzea eta praktika txarrak edo desegokiak zamatzea eta, bestetik, azpiegiturak sortzen direnean azpiegituretara eramaten diren hondakinen bidez ordaintzea azpiegitura horiek.

Adierazi du jarrera hori defendatu dutela epaitegietan, baina ikusten dutena da 2017ko tarifei errekurtsioa jartzea eta, irizpide teknikoetan oinarrituta, 2016koetan atzera egitea.

Josune Urkolak adierazi du alde bozkatuko dutela, epaiketa joatearen aurka zeudelako.


Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.08/2016-0091

Alkateak, maiatzaren 18ko 2017/0509 dekretu bidez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Batzar Orokorak 2015eko abenduaren 22ko bileran hondakinen goi kudeaketa zerbitzugintzaren 2016 ekitaldirako tarifak onartzen zituen ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsioan (61/2016 prozedura arrunta) atzera egitea erabaki zuen

Antolakuntza Batzordeak, 2017ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, aho batez, Xabier Arregi, Jone Urdampilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin, plenoari luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENA: Maiatzaren 18ko 2017/0509 dekretua berrestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri auzi honetarako izendatu zen Yolanda López de Luzuriaga Beltrán de Heredia abokatuari ematea, dagozkion izapideak osa ditzan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- MOZIOA: ZUBIETAKO ESKOLA TXIKIAN LEHEN HEZKUNTZA OSOA EZARTZEA.

Alaitz Aizpuruak adierazi du mozioa Zubietako Eskola Txikiko guraso elkarteak aurkeztu duela eta Antolakuntza Batzordean tratatua izan dela.

Jarraian, mozioaren testua irakurri du.

Ondoren, Alaitz Aizpuruak adierazi du mozio honek EAJ-k aurkeztu duen emendakin bat duela eta Josune Urkolari hitza eman dio emendakina aurkeztu dezan.


Josune Urkolak adierazi du mozioarekin ados daudela, baina era berean eskatzen dutena da Usurbilen ere eskola publikoa ezartzea. Hori dela eta, beste puntu bat txertatzea proposatzen dute, Eusko Jaurlaritzari eskatuz Usurbilen eskola publikoa ezartzeko pausoak eman ditzala.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du Zubietako Eskola Txikiko guraso elkartearekin egon zela, mozio hau laguntzeko eskatu baitzien. Harrituta geratu zela dio jakin zuenean Legebiltzarreko 2010eko erabaki bat zazpi urte ondoren egin gabe dagoela eta, are gehiago, erantzun zaiela ez dutela egingo. Antzeko mozioa Donostiako Udalean ere onartua izan dela gaineratu du.

Halaber, Josune Urkolak esan duenarekin ados dagoela esan du. Usurbilgo Udalean daramatzan bi urteetan aurrekontuetan defendatu duela dio Usurbilen eskola publikoa edukitzeko lehenengo pausoak eman behar direla.

Beraz, biekin dagoela ados esan du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du beraiek ere Eskola Txikiak egiten duen eskaerarekin bat egiten dutela.



Usurbilgo Udala

Emendakinari dagokionez, mozioa Eskola Txikiko komunitateak aurkeztu duenez, galdetu du ea emendakina komunitate horrekin adostua izan den edo beraien onspena duen, zeren beraien ustez hori izango bailitzateke egokiena.

Josune Urkolak erantzun du ez dutela beraien adostu.

Alaitz Aizpuruak adierazi du prozeduragatik eta komunitate horrek aurkeztutako mozioa izan denez, beraien botoa ezezko botoa izango dela.

Hala eta guztiz ere, zehaztu du eskola publikoaz behin baino gehiagotan hitz egin dutela eta horren aurrean beraien postura argia dela, hau da, eskola publikoaren aldekoa. Gogorarazi du prozesu bat egin zela eta bertan definitu zutela zer nolako eskola behar zen, hala ere, ez dela udal ahalmena eskola publiko bat eraikitzea eta gaineratu du EAJren ardurapean dagoen gobernu taldeak oraindik ez duela Usurbil eskola mapan sartu.

Eusko Jaurlaritzarekin hitz egingo zutela hitzeman zutela esan du. Momentu honetan, Zumarte Musika Eskolarako finantzaketa lortzeko Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela, lehentasunezko gaia dutelako, baina behin hau bideratzean eskola publikoaz hitz egiteko aprobetxatuko dutela esan du.

Hala ere, azpimarratu du beraien definitzen dutela herri eskola guztientzat bermatuta izango den eskola bat bezala eta horretarako bilatu beharko dira bideak nola egin, ez dute uste egokiena denik beste eskola bat eraikitzea. Besteak beste, ikastolak egin berri duen azterketan ume kopurua beherantz doala jasotzen delako. Epe ertain motz batean eskola lege berria ere hor dago eta antzeko gaiei erantzun bat eman beharko zaiela esan du.

Josune Urkolak adierazi du egia dela eskumena ez dela Udalarena, baina bai bitartekoak jartzea eta eskaera egitea.

Alkateak adierazi du beraien ez dutela inoiz zalantzan jarri eskola publikoak dituen dohainak. Kontua dela dio bere garaian Hezkuntza Sailak eskola mapa egin zuenean, hor zuela Usurbilen ere eskola publikoa planteatzeko aukera eta ez zuela egin. Ikusi behar dena da beharrak zein diren eta nola egokitzen diren gaur egungo errealitatera, eta herri honek zein eskaintza egin dezakeen. Ados daude eskolak inklusiboa, barneratzailea izan behar duela eta herri komunitate bati erantzun behar diola, eztabaida horretan sartzeko prest daude. Beraietzako arazoa dela dio Usurbildar batzuk egotea beraien umeak gaur egun eramaten dituzten eskolara eramatea izan diru arazo eta beste arazo batengatik. Hitz eman zuten eta Hezkuntza sailarekin harremanetan jarriko direla dio soluziorik onena aurkitzeko.



Usurbilgo Udala

Amaitzeko, azpimarratu du garbi utzi behar dela eskola publikoa ezartzea ez dela udalaren eskumena eta udalak dituen ahalak oso mugatuak direla.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du espero duela egunen batean bilera hori Eusko Jaurlaritzarekin edukitzea. Gaineratu du jakin duenez gobernuan alderdi sozialista zegoenean, aurreikusten omen zen eskola publikoa.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du 2011ko hasieran hezkuntza ordezkaria hemen egon zela eta bilera batzuk ere egin omen zituela gurasoekin eskola publikoa egingo zela proposatuz edo mahai gainean jarriz. Legegintzaldi aldaketa egin zenean, ordea, beraiek joan zirela, Mari Luz-ekin bilduta egon zirela eta argi eta garbi esan zela Usurbil ez zegoela mapan sartuta eta asmorik ere ez zegoela epe motz-ertain batean Usurbilen eskola publikoa egiteko, ez eta aurreko hezkuntza ordezkariak aipatu zituen prefabrikatuak edo antzekoak jartzeko ere.

Josune Urkolak esan du guzti horretan krisiak izan duela eragina eta gaur egun beste egoera batean gaudela.

Alkateak adierazi du eredu arazo bat ere badagoela. Inguruko herrietan ikusten ari direla dio eskolak banatu beharrean biltzen ari direla eta orokorrean egiten den balorazioa da Usurbil moduko herrietan bi eskola egotean bi komunitate sortzeko joera dagoela. Beraien ustez eskolak integratzailea izan behar du, komunitate desberdinak integratzen dituen. Kontutan izanda bi eskolatik gatozela eta momentu honetan herrian eskola bat egonda, lortu behar dena da herri eskola bat izatea eta herritar guztientzat baliozkoa izango dena. Beraien ustez ez da soluzio egokia beste eskola bat sortzea.

Jarraian, batzarkideek, EAJ/PNVk aurkeztutako emendakina bozkatu dute:


Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain,

Beraz, gehiengoz, emendakina ez onartzea erabaki dute.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordetik datorren mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Zubieta Eskola Txikian Lehen Hezkuntza osoa ezartzeko eskaera dela eta.



Usurbilgo Udala

JUSTIFIKAZIOA

2010. urteko ekainean Eusko Legebiltzarrak Legez besteko proposamen bat onartu zuen, Zubietako Eskola Txikia hobetu eta handitzeari buruzkoa. Onartutako proposamenak ondorengo bi puntu hauek jasotzen zituen:

1. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio behar diren neurriak har ditzala Zubietako eskola txikia mantendu eta handitzeko, eta **modu progresiboan ezar dezala Lehen Hezkuntza osoa, 2010-2011 ikasturtetik aurrera.**
2. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio gaur egun Zubietako eskola txikiak dituen instalazioen berrikuntza bultzatzeko behar diren jarduketak egin ditzala, hartara gaur egun Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklorako duten aurrefabrikatua ordezkatu, ikastetxeko ikasgela kopurua handitu eta jangela bat ezartzeko.

Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamenaren ondoren, 2014. urtean Donostiako udalak eta Hezkuntza sailak eraikin berria egin ahal izateko bitartekoak jarri zituzten. Horrela, 2014/15 ikasturtetik aurrera eraikin zoragarriaz gozatzeko aukera daukagu. Eraikin berria ez ezik, jangela zerbitzuaz hornituta gaude, eta eraikinak espazio libreak ditu, Lehen Hezkuntza osoa ezartzeko moduan (zehazki 2 ikasgeletarako espazioak, juxtu Lehen Hezkuntza osoa ezartzeko beharrezkoak direnak). Aukera ezin hobea da egindako inbertsioari etekina ateratzeko.

Eskolak gaur egun martxa ezin hobea darama, eta horrek Zubieta herrian eta inguru hurbilean dei efektu bat sortu du, gaur egungo familia eta umeen beharretara ezin hobeto egokitzen delako. Horren adibide, datorren ikasturterako matrikula kopuruak berriz ere gora egin izana da (guztira 45 haur izan ditugu 2017/18 ikasturtean).

Horiek horrela Zubietako Eskola Txikiaren komunitate osoak (eskolak, herriak eta guraso elkarteak) aurkezten duen mozioa, aho batez onartu du Udalbatzarrak:

1. Usurbilgo Udalbatzaren Osoko Bilkurak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio 2010ean onaturiko legez besteko proposamena betetzen amai dezala oraindik bete gabe dagoen atalari dagokionez, hain zuzen ere:
 - Zubietako Eskola Txikian Lehen Hezkuntza osoa progresiboki ezartzea, 2017/18 ikasturtetik hasita.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- MOZIOA: EGOITZAREN HISTORIA.

Jone Urdanpilletak adierazi du mozio hau Gure Pakea, Gure Elkartea eta Arrate jubilatutako elkarteek aurkeztutakoa dela.

Jarraian, mozioa irakurri du.

Jone Urdanpilletak erantsi du mozioarekin batera 2.375 sinadura ere aurkeztu dituztela.

Argi dagoela dio pisuzko arrazoi bat badagoela hemen Foru Aldundiari herrian egoitza bat eskatzeko.

Legegintzaldi hasieran berehala joan zirela dio Maite Peña diputatuarekin biltzera Usurbilerako zer asmo zituen jakiteko. Momentu hartan ez baiezkorik ez ezezkorik ez zitzaizela esan adierazi du, non eraiki aztertzen ari zirela jakinarazi omen zitzaizen. Gaur egun badakitela dio, Lasartekoa handitu dutela eta Pasaiakoa eraikitzeaz dagoela esan du.

Bestalde, Maite Peñarekin etzi dutela hitzordua jarrita esan du eta mozio honen berri emango diotela hitzeman du.

Josune Urkolak adierazi du ados daudela.

Fermin Orue-Echevarriak ere adierazi du guztiz ados dagoela eta garrantzitsua dela Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Matiarekin ahalik eta azkarren eman beharreko pausoak ematea. Aurten ez da posible izango baina datozen urteetan behintzat zerrendan egotea ahalik eta azkarren.

Alkateak elkarteetako ordezkariari hitza eman die.

Ordezkarietako batek, Damaso Lizasok hitza hartu du eta adierazi du ikusten dutela arazo larri bat ari dela sortzen eta ikusirik badagoela hor lurzati bat jada izendatuta dagoena, horri jarraipen on bat eman behar zaiola uste dute, ikusirik gainera denek adostasuna dagoela.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordetik datorren mozioa aztertu eta aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

“80. hamarkadan zaharren egoitza eraikitzeke lau saiakera egin ziren. Lehena, Andres Bruño alkate zela, 40 milioi eskatu zitzaizkion Foru Aldundiari eraikuntzarako. Dirudienez ez zen erantzunik jaso. Bigarren saiakera gizarte gaietako ahaldun Prudencio Larrañagak egin zuen, San Estebango sendategia erosi eta 120 plaza egokitu nahi zituen. Proposamen honek ez zuen Udalaren onespina jaso bi arrazoiengatik: Herri erdigunetik urruntasuna eta handiegia izateagatik. Hirugarren saiakera Sutegi etxea, garai batean ikastola izandakoa, bihurtzea izan zen. Baina ez zen onartua izan beharren ikerketa bat behar zelako eta enpresa pribatu batek eginiko ikerketak zioen 2000. urterako beharrak 30 plazako egoitza batenak izango zirela zabaltzeko aukerarekin eta Sutegi etxeak ez zituen neurri nahikoak. Azkenik, Udalean osoko bilkura bat egin zen eta bertan aho batez adostu zen 2000. urterako egoitza eraikitzea.

Gai hau ez zen landu hurrengo legealdietan 2010. urterarte. Matia fundazioak Kalezarko komentuaren itxiera medio, honako ezaugarriak proiektua aurkeztu zuten: 151 plazako zaharren egoitza, 50 plazako eguneko zentroa eta finantzaketa laguntzeko 35 etxebizitza Txara-gaina-ko lursailean.

Urte hauetan zehar negoziaketa ezberdinak egon dira Aldundiarekin baina ez dute fruiturik eman. Arrazoiak bat bizitzen ari garen krisi ekonomikoa izan daiteke, zeinetan oso zaila den hipoteka kreditu bat ematea. Honenbestez, finantzaketarik egon ezean ez dago proiekturik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aurrekontuetan, 2017. urterako ez du inongo partidarik aurreikusi Usurbilgo zaharren egoitza eraikitzeke, halaber, bai Pasaiaiko egoitza eraikitzeke edota Lasarte-Oriako Atsobakar egoitza handiagotzeko. Bitartean, Usurbilgo eguneko zentroak ez ditu usurbildarren beharrak asetzen handitze lanak egin diren arren. Gauza jakina da beste zentroetara eraman behar izaten direla.

Laburbilduz, gure herriak ahalik eta azkarren behar du zaharren egoitza gure bizilagunak inguruko egoitzetan banatuak jarraitzen baitute. Gutxi gora behera 14 bizilagun dira eta 4 itxaron zerrendatan daude. Lekualdatze hauek arazo larriak sor ditzakete familia eta lagunekiko kontaktua eta elkarbizitzari dagozkionak.

Gure herrian 1026 herritar daude 65 urtetik aurrerako zergapekoak direnak. Eguneko zentroan 18 herritar daude, 4 herritik kanpora doaz eta 12 eskaera daude Usurbilgo zentrorako. Eustaten arabera Usurbilgo herritarren %4,82-ak I, II eta III. mailako ezgaitasunak dituzte, hau da, 300 pertsona inguru.

Donostialdean 300 plaza baina gehiagoko defizita dugu. Egoitza bat behar duten herritarrak presazko egoera batean daude beraien menpekotasunagatik beraien zaintzaren ardura familiartekoen eta emakumeen esku geratzen da, izan ere, etxeko zaintza eta eguneko zentroa ez dira nahikoak beraien zainketarako.

Egoera latz honen aurrean eta Matia fundazioa bere egoitzatan aurrera eramaten ari den zaintza modeloaren aldaketa kontutan hartuta, zeinak bilakatu nahi diren elkarbizitza unitate, bertan bizi eta lan egiten duten pertsonetan oinarrituta, uste dugu beharrezkoa dela gogoeta bateratu bat zainketa mota hobereana aurkituko duena



Usurbilgo Udala

Usurbilgo menpekotasundun pertsonentzat. Modelo hau etxeetako zaintzatik hasi, eguneko zentroetatik pasa, zerbitzudun etxebizitzak eta menpekotasun larriak dituztenentzako egoitzan amaituta.

Hau guztia ikusirik, eskatzen diogu Usurbilgo Udalari osoko bilkuran, zeinak egon behar lukeen herritarren zerbitzura, beharrezko gestioak egin ditzala, bai Aldundiarekin eta baita Matia fundazioarekin beharrezko zerbitzuak garatzeko Txara-gaina deritzan zonaldean, edukiera egokiduna eta beharretara egokitua.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisolli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- MOZIOA: ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN DEFENTSA.

Alkateak adierazi du mozio hau Antolakuntza batzordetik datorrela EH Bildu eta EAJren aldeko botoarekin.

Jarraian, mozioa irakurri du.


Alkateak eraso horrek duen larritasuna azpimarratu du. Horrela esanda badirudi kartel bati bakarrik su eman zitzaiola, baina jakin behar dela dio kartel hori etxe baten atarian jarrita zegoela eta etxe horrek su hartzeko arriskua egon zela, beraz, pertsona batzuen eta etxe baten aurka egindako eraso bat ere izan zela aditzera eman du.

Bestetik, azpimarratu du parte hartze izugarria izan zela eta horrek erakusten duela esan du herri honek erabakitze eskubidearekin duen konpromisoa.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du 3. puntuarekin guztiz ados dagoela, biolentziaren aurka dagoela eta guztiz salatzen duela lokal horrekin egin zutena. Aldiz, beste bi puntuarekin ez dagoela ados adierazi du, horrela egiten diren galdeketeekin ez baitu sinesten, beste modu batzuk badaudela erantsi du.

Mozio guztia batera bozkatu behar baldin bada, aurka bozkatuko duela esan du.

Josune Urkolak adierazi du beraiek erabakitze eskubidearen alde daudela eta erabakitze eskubidean sinesten dutela.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Antolakuntza batzordetik datorren mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, joan den Maiatzaren 7an Herritzartu eta Zubiartean elkarteak Herri Galdeketa antolatu zituen Usurbilen eta Zubietan. Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen defentsan, demokrazian sakontzeko beste pauso bat izan da. Zentzu horretan, mozio hau babesten dugun zinegotziok demokraziaren adierazpen gorena den erabakitzeko eskubidearen kontzeptua defendatzen dugu.

Behin eguna igarota, Udalbatza honek auzolanean burutu den ekimenean parte hartu duten guztiak zoriondu nahi ditu. Izan ere, Usurbil eta Zubietan artean lortu diren 2.092 (1.848 Usurbilen eta 244 Zubietan) bozkek ez dira ezerezaren ondorioz lortutako zerbaitekin, baizik eta elkarlanaren eta konpromisoaren ondorioz.

Aurrekoa aipatuta, zera adierazi nahi dugu:

1-. Antolatzaile lanetan aritu direnei eskerrak eman nahi dizkiegu, egindako lan guztiak bere fruituak eman dituelako.

2-. Usurbildarrok eta zubietarrok erakutsi dugun konpromisoa eskertu nahi dugu, euskal herritarrok gure etorkizunaz erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatzeagatik.

3-. Maiatzaren 13an, larunbata, Herritzartu elkarteak Etxebeste kalean duen egoitza kanpoaldean gertatutako eraso salatzen nahi dugu. Izan ere, Maiatzaren 7ko emaitzak isladatzen zituen kartela erre zuten ezezagun batzuek. Kartel bati baino gehiago, galdeketa egunean parte hartu genuen 1.848 usurbildarroi eraso egin digute. Herritzartu-k eta Gure Esku Dago-k kaleratutako gaitzespen-oharrean zera diote: “Erabakitze eskubidea nahi dugula eta praktikara eraman nahi dugula adierazi genuen ozenki, eta hori ezin da egun batetik bestera isilarazi”. Adierazpen hau sinatzen dugunok bat egiten dugu beraien adierazpenekin.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisol.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

10.- MOZIOA: MOZAL LEGEA ETA MAIATZAREN 13KO GERTAERA USURBILGO TREN GELTOKIAN.



Usurbilgo Udala

Xuban Zubiriak adierazi du EH Bildu udal taldearen asmoa izan dela maiatzaren 13ko istripuan zauritu zen ekintzaileari elkartasuna adieraztea.

Jarrarian, mozioa irakurri du.

Xuban Zubiriak esan du kasu honetan ere EAJ udal taldeak emendakina aurkeztu duela eta hitza pasa die.

Josune Urkolak adierazi du beraien ustez mozioaren testuan salaketa falta dela. Mozal legearen aurka daudela dio, baina gertatutakoa salagarria dela iruditzen zaie. Hori dela eta, laugarren puntu bezala honakoa jarriko luketela esan du. "4.- Mozal Legearen aurka, beste edozein helburu politikoen alde bezala ere, bide demokratikoetatik aritzea ezinbestekoa ikusten du Udal honek. Hori dela eta, gure salaketa azaldu nahi dugu, pasa den larunbatean Euskotreneko tren bati egindako eraso."

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du lege honen aurka daudela eta Parlamentuan lege hau bozkatu zenean, aurka bozkatu zutela. Espero duena da ahalik eta azkarren aldatzea. Garbi utzi nahi duela dio gertatutako istripua sentitzen duela eta espero duela mutil hau ahalik eta azkarren sendatzea, baina legea aldatu arte errespetatu egin behar dela esan du. Lege bat ez bazaigu gustatzen, egindako hau ez dela modua eta bidea adierazi du.

Esandakoa kontutan hartuta, mozioaren testuan abstenitu egingo dela eta aurkeztu den emendakinarekin ados dagoela esan du.

Xuban Zubiriak adierazi du laugarren puntu horretan aipatzen duten eraso, beraiek ez diotela eraso izaera ematen ekintza horri, iruditzen baitzaie badela denbora asko lege hau euskal herritar askoren adierazpen askatasuna urratzen ari dela eta ekintza hori herritar guztiek desobedientzia zibilerako duten eskubidearen barne kokatzen dute. Hau guztia horrela, emendakinaren aurka bozkatuko dutela esan du.

Alkateak adierazi du esan beharra dagoela ez zela gidariaren aurkako erasorik izan, behin trenea geldituta zegoela trenaren aurrean jarri omen zen ekintzailea hau martxan jarri ez zedin. Gazte honek zauri larriak izan zituela, koma induzituan egon dela baina aste honetan esnatu dela eta dirudienez arriskutik kanpo dagoela informatu du.

Jarraian, batzarkideek, EAJ/PNVk aurkeztutako emendakina bozkatu dute:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Aurkako botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain,

Beraz, gehiengoz, emendakina ez onartzea erabaki dute.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordetik datorren mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Joan den maiatzaren 13an istripu bat gertatu zen Usurbilgo tren-geltokian. Mozal legearen aurkako pintada bat margotzera zihoazela, trenak ekintzaile bat harrapatu zuen eta zauri oso larriak eragin zizkion.

Hain zuzen ere, Hiritarren Segurtasunaren legea edo herritarrek “Mozal legea” gisara ezagutzen duguna, 2014ko abenduan onartu zen. Herritarren gehiengo handia aurka agertu izan den arren, legeak indarrean darrai. Legeak oinarritzko eskubideak urratzen ditu, adibidez, intimitate eskubidea edo adierazpen askatasuna, horretarako herritarren zerrenda beltzak sortuz, polizien aurreko babesgabetasuna baliatuz, edo arrazoi garbirik gabeko auzipetzei aukera emanez. Herritarrak susmopean jartzen ditu une oro eta estatu polizialaren oinarria finkatzen du.

Oinarritzko askatasun eta eskubideen aurkako lege bat da hau. Herritarrak babestu beharrean, hauek mehatxatzea bilatzen du eta kolore guztietako indar polizien jardunari inpunitaterako ateak zabaltzen dizkio.

Aplikazioari dagokionez, 2015eko apiriletik 2016ko abendura bitartean, Ertzaintzak 8.087 aldiz aplikatu du legea. 2016ko ekainaren 22an, Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz hau ez aplikatzeko eskaria onartu zuenetik, Polizia Autonomikoak 2.857 aldiz aplikatu du (2017ko martxoko datua).

Horrenbestez, Usurbilgo Udalbatzarrak adierazten du:

1.- Eusko Legebiltzarrak 2016ko ekainaren 22an gehiengoz onartu bezala, Ertzaintzari Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Mozal legea deiturikoa ez aplikatzeko eskatzen diogu.

2.- Gure babes eta erabateko atxikimendua eskaini nahi diegu, lege eskubide guztiak urratuz zigortu dituzten herritar libre guztiei.

3.- Gure kezka adierazi nahi dugu pasa den larunbatean Usurbilgo tren-geltokian Mozal Legearen aurkako protesta baketsu batean larriki zauritu zen ekintzailearen egoera dela eta. Ahalik eta lasterren osatzea opa diogu.

4.- Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari eskatzen diogu ez dezala ekinbide judizialik abiarazi zauritutako gaztearen aurka, ez eta identifikatu dezaketen protestako beste edozein parte-hartzailearen aurka ere.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

11.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: RAMON UNANUE MATXAIN JAUNARI AITORTZA HERRITARRA.

Alkateak adierazi du adierazpen hau Antolakuntza batzordea egin ondoren aurkeztu zela, beraz, batzordetik tratatu gabe datorrenez, hasteko, gai zerrendan sartzea berretsi behar dela.

Batzarkideek, aho batez, puntu hau gai zerrendan sartzea berretsi dute.

Jarraian, alkateak hitza eman die sustatzaileei.

Sustatzaileetako batek, Xabier Mikel Errekondok hitza hartu du eta adierazpen honen helburua zein den laburtu du. Azaldu du Ramon Unanue 2013ko azaroan hil zela eta Usurbilen 40 urte eman zituela borondatez lanean hainbat arlotan. Laburbilduz, bere bizitza kirola izan dela, baina ez soilik kirol helburuak lortzeko baizik eta pertsonengana iristeko baita ere.


Sustatzaileen helburua dela dio herritarrei jakinaraztea Ramon Unanue Matxain nor izan zen eta ze ekarpen egin duen, eta aitortza bat egitea.

Era berean, senideei ere aitortza egin nahi zaiela adierazi du. Senideak honen jakitun dira eta ekitaldian izango direla esan du.

Herri honen izaerari ekarpen garrantzitsua egin diola uste dute.

Eskatzen dutena da Udalak bere egitea aitortza adierazpen instituzional honen bitartez.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du zoritxarrez Ramon ez zuela ezagutzen, baina testu hau irakurrita eta Xabier Mikelekin hitz eginda, omenaldi hau merezi duela uste du.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak adierazi du berak ere ez zuela ezagutzen.

Carlos Pérezek ere adierazi du Xabier Mikelekin ados dagoela, gizon bikaina zela.

Alkateak adierazpenaren azken puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, aho batez, honako adierazpen instituzionala onartu dute:

“Ramon Unanue Matxain jaunari aitortza herritarra

1.- Ramon Unanue Matxaini aitortzea herriari eta herritarrei egindako borondatezko ekarpen aberats eta zabala, bai kirol arloan, bai kultur arloan, bai osasun arloan eta bai herria-herritarra biko ulertzeko moduan.

2.- Ramon Unanue Matxainen omenezko ekitaldiari udal gisako sostengua eskaintzea.

3.- Ekitaldiaren amaieran senideei aitortza hitzartzea egingo zaie. Herriaren eta Udalaren izenean, Alkateak hitz batzuen bidez Ramon Unanue Matxain jaunari ohorezko aitortza ofiziala egin diezaion eskatzen dugu, parte hartuko duten gainontzeko ordezkariekin batera.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

12.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak, Udalbatzarraren izenean, Mirari Azurmendi zinegotziari eta bere familiari doluminik sentikorrena helarazi die, bere aita hil baita.

Bestetik, zinegotziei jakinarazi die Santixabeletako dantza entseguekin hasita daudela, ostegunero arratsaldeko 18:30ean Sutegin. Gaineratu du aurten gainera udal ordezkariarekin batera Gure Esku Dago-ko ordezkari bat ere izango dela sokan. Gonbita luzatu die.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:00etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.